BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 24

C MAILA





Egilea eta data: Manuel Etxabe, 1891.

Deskribapena

San Martin 22ko eta Hondarribia 24ko lurzatiak berriki bateratu dira hotel bat egiteko obra batean, barrutik hustu ondoren. Lehendabizikoa mehelin arteko eraikina izan zen, Manuel Etxabek 1981ean egina, eta bigarrena, berriz, Jose Klemente Osinaldek proiektatua 1890ean, ertzean bertan.

Katedrala inguratzen duten bizitegi eraikinak Jose Goikoak ezarritako multzo ereduaren arabera proiektatu ziren, eta 1895 eta 1905 bitartean altxatu zituzten, tenplu neogotikoa baino apur bat geroago. La bloke oso eta bi etxe uharteren aurrealdeak, San Martin kalera. Etxe uharte bakoitzak mehelin arteko etxebizitzak ditu, fatxada bikoitzarekin edo ertzekoak; guztiek ere kanpo trataera unitarioa dute, eta, batzuetan, nolabaiteko desfasea ageri dute fatxadaren erritmoen eta barruko propietateen artean. Beheko solairua eta goiko lau solairu dituzte, baita teilatupea ere. Zenbaki honek bakarrik ageri du teilatupeko osteko gehikuntza fatxadan, 1917ko proiektuaren arabera eginda. Etxebizitzen fatxadak arkitektura eta eraikuntza kalitate handikoak dira. Tradizio neoklasikokoak dira, eta eragin eklektikoko xehetasunak dituzten gaineratuta, forma neurtuekin bada ere. Goikoak ordena orokorraren ideiari zion konfiantza islatu zuen, sailean aplikatzeko moduko proportzio sistemarekin eta aldaketarik gabe fatxada guztietan. Maila zehatzagoan, nabarmentzekoak dira harri harlanduzko marrazkia eta profilak, balaustradako erematea, plazaren iparraldeko arkuak, baita arotz lanen tonu grisaren eta hareharriaren arteko konbinazio berezia ere. Jatorri bera dute 22ko eta 24ko proiektuek.

Babes erregimena.

1.- Babes erregimen orokorra.
Plan berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena. Hori guztia, gaur egungo egoera ez badator bat irizpide horiekin, eta haien mantentzea ez badago justifikatuta babestu behar den arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik.

2.- Berariazko babes erregimena.
A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak:
beheko solairuko baoetako arotz lana.
B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak, balkoietako burdina lanak, pertsiana tolesgarriak eta arotz lanaren jatorrizko formatua, begiratokiak.
C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
* Artzain Onaren E mailako multzoaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira jasodurak baimentzen.
D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.